



SINATZAILEA

Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24

BERAKO UDALA

herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

2024KO APIRILAREN 23ko BILKURAKO AKTA.

Tokia: Berako Herriko Etxea.
Eguna: 2024-04-23.
Hasiera ordua: 19:30.
Bilkura mota: ohikoa, 1. deia.

BERTARATUAK:

EH BILDU

Ines R. Matxiarena Aldalur
Patxi Castillo Graciarena
Maria Guadalupe Mendigutxia Etxebeste
Jose Esteban Aguirre Zubietta
Adela Arlegi Goienetxe
Francisco Larrechea Lazcano
Angel Pombar Sainz

HERRIRAKO

Jose Antonio Oyarzabal Iribas
Andoni Andueza Intxaurreondo

EZ EGOTE JUSTIFIKATUAK:

Estibaliz Pinacho Olaciregui

ALKATEA (Bilkurako buru):

Aitor Elexpuru Egaña

IDAZKARIA: Miguel Jose Belarra Tellechea, ekintzaren akta jasotzen du.

EZTABAIDATUTAKO GAIK (behar bezala egindako deialdiaren gai-zerrendan sartu zirenak):

1. AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONARPENA.

Alkateak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera bidali zen aurreko bilkurako aktari (2024-03-19). Inork ez du azalpenik egin eta **aho batez** onartu da akta.

2. 2024/4 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUAK ("TOKIKO MERKATARITZATIK KOMUNITATEA EGITEN" PROIEKTUA). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela "Tokiko merkataritzatik komunitatea egiten" izeneko proiektua gauzatzeko, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGAÑA
2024/04/24

BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAKT KDA2 KKCJ C23Q

AKTA 2024-04-23 EU (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 58184

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

9tik 1 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24



SINATZAILEA

Berako Udaleko Jarduneko Alkatea.
AITOR ELEXPURU EGANA
2024/04/24

- Apirilaren 8ko 63/2024 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2023ko aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2024ko apirilaren 15ean egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kredituak, gastu-partida hauetarako:

1-15100-62501. Paperontziak, jardinerak eta eserlekuak erostea. 45.000,00 euro.

1-1533-62501. Bizikletak aparkatzeko tokia Lesakan. 7.696,93 euro.

1-1622-62500. Kartoia autotrinkotzeko makina erostea. 34.727,00 euro.

1-1650-61900. Argiztapen intelignetea Alzate-Kanttonberrin. 98.251,39 €.

1-4300-22606. Komunikazio eta marketin digitaleko prestakuntza. 17.000,00 €.

1-4300-62500. Komun publiko inteligneteak. 92.905,11 euro.

1-4300-62501. Erosteko orgak eta poltsa berrerabilgarriak erostea. 8.998,02 euro.

1-4300-62502. Azoketarako karpak erostea. 47.302,00 euro.

1-4300-62600. Wifi jartzea merkataritza-gunean. 19.600,00 euro.

1-4300-64000. Komunikazio-estrategia diseinatzea eta ezartzea. 10.285,00 euro.

1-4300-64001. Sentsibilizazioko ikus-entzunezko kanpainak sortzea. 9.160,00 €.

1-4300-64002. Komenentzia mistoko dendaren azterketa eta prototipoak egitea. 10.285,00 euro.

1-4300-64100. Irudia eta marka sortzea: logo-APP. 42.996,50 euro.

Zenbateko osoa, 444.206,95 euro.

- Txosten horretan proposatzen dela atxikitako finantzaketa duten gastuetarako diruzaintzako gerakina den 1-87010 partidaren kargura finantzatzea, 444.206,95 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onspena ematea 2024/4 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kredituak).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onspenaren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onspenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

3. 2024/5 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: KREDITU-GEHIGARRIA (AUTOKARABANAK). HASIERAKO ONSPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAKT KDA2 KKCJ C23Q

AKTA 2024-04-23 EU (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 58184

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

9tik 2 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGANA
2024/04/24

Ikusirik:

- Ez dagoela kreditu nahikorik gastuen partidan autokarabanentzako eremu bat egokitzeko obretan izandako igoerari aurre egiteko.

- Apirilaren 8ko 63/2024 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2023ko aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2024ko apirilaren 16an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, kreditu-gehigarria, inbertsioak egin ahal izateko. Aipatzen du ondoko hau dela gehigarria behar duen gastu-partida:

1-1690-60901. Autokarabanak. 9.874,57 euro.

Zenbateko osoa, 9.874,57 euro.

- Txosten horretan proposatzen dela atxikitako baliabideetarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 9.874,57 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea 2024/5 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (kreditu-gehigarria).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldian, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespinen erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespinari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

4. 2024/6 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUAK (APARKATZEKO TOTEMAK KANTTONBERRIN). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela araututako aparkalekuko totemak jartzeko Kanttonberrin, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.





SINATZAILEA

Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24

- Apirilaren 8ko 63/2024 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2023ko aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2024ko apirilaren 16an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espediente izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-1533-62502. Kanttonberriko aparkatzeko totema. 37.042,58 euro.
Zenbateko osoa, 37.042,58 euro.

- Txosten horretan proposatzen dela atxikitako baliabideetarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 37.042,58 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea 2024/6 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteke kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espediente 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespinen erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berriazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespinari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

5. 2024/7 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUAK (UHOLDEEK AUZO-BIDEETAN ERAGINDAKO KALTEAK KONPONTZEA). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espediente eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar izan zituela 2023ko maiatzeko eta ekaineko uholdeek auzo-bideetan eragindako kalteak konpontzeko, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Apirilaren 8ko 63/2024 Alkatetzaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2023ko aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2024ko apirilaren 16an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espediente izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGANA
2024/04/24



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAKT KDA2 KKCJ C23Q

AKTA 2024-04-23 EU (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 58184

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

9tik 4 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

honetarako:

1-4121-69202. Uholdeek auzo-bideetan eragindako kalteak. 329.728,60 euro.
Zenbateko osoa, 329.728,60 euro.

- Txosten horretan proposatzen dela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina den 1-87000 partidaren kargura finantzatzea, 329.728,60 euroko zenbatekoan.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespena ematea 2024/7 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendaurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespeneren erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendaurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien ebazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onspenari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

6. 2024/9 ZENBAKIKO AURREKONTU-ALDAKETA: APARTEKO KREDITUAK (PLAKA FOTOVOLTAIKOAK JARTZEA KIROLDEGIAN). HASIERAKO ONESPENA.

Alkateak espedientea eta idazkariak prozedura azaldu ondoren, erabaki hau hartu da:

Ikusirik:

- Udalak zenbait gastu egin behar dituela udal kiroldegian plaka fotovoltaikoak jartzeko, baina indarrean dagoen aurrekontuan ez dagoela gastu horietarako krediturik.

- Apirilaren 8ko 63/2024 Alkatezaren Ebazpenaren bidez onetsi zela 2023ko aurrekontuaren likidazioa.

- Kontu-hartzaileak, 2024ko apirilaren 17an egindako txostenean, adierazten duela aurrekontua aldatzeko espedientea izapidetu behar dela, aparteko kreditua, gastu-partida honetarako:

1-3424-62200. Plaka fotovoltaikoak jartzea kiroldegian. 100.761,90 euro.
Zenbateko osoa, 100.761,90 euro.



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELENBURU EGANA
2024/04/24



BERA

Egiaztapen-aseguruko kodea: 3AAA AAKT KDA2 KKCJ C23Q

AKTA 2024-04-23 EU (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 58184

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

9tik 5 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24

SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELENPURU EGAÑA
2024/04/24

- Txosten horretan proposatzen dela partida hauen kargura finantzatzea:

1-87000. Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina. 57.764,40 euro

1-87010. Atxikitako finantzazioa duten gastuetarako diruzaintzako gerakina. 42.997,50 euro.

Zenbateko osoa, 100.761,90 euro.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 202., 213. eta 214. artikuluei eta indarrean dagoen Aurrekontuko 9. Exekuzio Oinarriari jarraikiz,

aho batez ERABAKI DA:

1. Hasierako onespina ematea 2024/9 zenbakia duen aipatu aurrekontu-aldaketari (aparteko kreditua).

2. Jendurrean jartzea espedientea 15 eguneko aldi, udal iragarki taulan iragarrita, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

3. Ohartaraztea ezen, jendurreko erakustaldian erreklamaziorik aurkezten ez bada, hasierako onespinen erabakia behin betiko onetsizat joko dela, eta jendurrean jartzeko aldia igarotakoan jarriko dela indarrean.

Erreklamazioak edo alegazioak eginez gero, osoko bilkurak berariazko erabakia hartu beharko du erreklamazio edo alegazio horien eabazpenari eta proposatutako aldaketaren behin betiko onespinari buruz, eta behin betiko testua udal iragarki taulan argitaratu ondoren jarriko da indarrean.

7. INFORMAZIOAREN SEGURTASUN-POLITIKA ONARTZEA ETA ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN SINADURA ELEKTRONIKOAREN ETA ZIURTAGIRIEN POLITIKARI ATXIKITZEA.

Alkateak eta idazkariak gaia aurkeztu ondoren, honako erabaki hau hartu da:

Informazioa lehen mailako aktiboa da Berako Udalarentzat, zerbitzu gehienak emateko funtsezkoa den unetik. Bestalde, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak gero eta ezinbestekoagoak bihurtu dira administrazio publikoentzat. Hala ere, informazioaren tratamenduari egiten dizkieten hobekuntzek arrisku berriak dakartzate berekin, eta, beraz, beharrezkoa da berariazko neurriak hartzea informazioa eta informazioaren mendeko zerbitzuak babesteko.

Administrazio elektronikoa garatzeko, informazio- eta komunikazio-teknologiaren sistemek informazio ugari tratatu behar dute. Informazioa arrisku eta ahulezia mota desberdinen mende dago, eta sistema horiei eragin diezaiekete. Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasun Eskema Nazionala (aurrerantzean, SEN) arautzen duen maiatzaren 3ko 311/2022 Errege Dekretuaren helburua da konfiantza ematea informazio-sistemek beren zerbitzuak emanen dituztela eta informazioa beren zehaztapen funtzionalen arabera zainduko dutela, kontrolaz kanpoko etenik edo aldaketarik gabe, eta informazioa baimenik gabeko pertsonak ezagutu gabe.

Segurtasun Eskema Nazionala betetze aldera, Berako Udalak, herritarren eskura jarritako izapide elektronikoen euskarri diren informazio-sistemi eragin diezaieketen arriskuen jakitun, eta kontuan hartuta herritarren eskura jartzen duela bere aktibo baliotsuena, bere Informazioa, badaki horiek behar besteko arretaz administratu behar direla, eta neurri egokiak hartu behar direla tratatutako informazioaren edo emandako zerbitzuen eskuragarritasunari, osotasunari edo



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAKT KDA2 KKCJ C23Q

AKTA 2024-04-23 EU (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 58184Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

9tik 6 orrialdea



SINATZAILEA

Berako Idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

konfidentzialtasunari eragin diezaioketen ustekabeko edo nahita egindako kalteetatik babesteko.

Bestalde, teknologia berrien erabilera sustatu nahi da Udalean eta herritarrengan. Honako hauek dira, besteak beste, lortu nahi diren helburu nagusiak: herritarrek Udalarekin duten harreman elektronikoa sustatzea, eta harreman horretan herritarren eta Udalaren artean beharrezko konfiantza sortzea.

Informazioaren segurtasunaren helburua informazioa eta zerbitzuak babestea da, jasaten dituzten arriskuak maila onargarri bateraino murriztuz. Erakunde bakoitzaren barruan, gobernu-organo gorenak soilik dituzte maila hori finkatzeko, jarduketak antolatzeke eta horiek gauzatzeko bitartekoak gaitzeko eskumenak. Ildo horretan, lehenetsutako jarduerak dira informazioaren segurtasun-politika bat ezartzea eta, horren ondorioz, zereginen eta erantzukizunen banaketa egitea; izan ere, segurtasuna gobernatzeko bi tresna nagusiak dira, eta ondorengo jarduketa guztietarako erreferentzia-esparrua osatzen dute.

SENea egokitzeak esan nahi du Berarako Udalak eta bertako langileek SENek berak eskatzen dituen gutxieneko segurtasun-neurriak aplikatu behar dituztela, bai eta zerbitzuak emateko mailen etengabeko jarraipena egin, emandako ahuleziak jarraitu eta aztertu, eta gorabehera erantzun eraginkor bat prestatu ere, emandako zerbitzuen jarraitutasuna bermatzeko.

Era berean, eta Administrazio Elektronikoen esparruan Elkarreragingarritasun Eskema Nazionala (aurrerantzean, EEN) arautzen duen urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretuan ezartzen den bezala (2010eko urtarrilaren 29ko BOE), Sinadura Elektronikoen eta Ziurtagirien Politika izateko beharra ezartzen da, eta politika hori "sinadura elektronikoa nola sortzen, egiaztatzen eta kudeatzen diren zehazten duten segurtasun-, antolamendu-, teknika- eta lege-arauen multzoa da, sinadura-ziurtagiriei eska dakizkiekeen ezaugarriak barne".

EENren 18. artikulua 1. apartatuak honako hau ezartzen du: «Estatuko Administrazio Orokorra sinadura elektronikoen eta ziurtagirien politika zehaztuko du. Politika hori elkarreragingarritasun-esparru orokorra izango da sinadura elektronikoa autentifikatzeko eta elkarrizkatzeko, bere jarduera-eremuaren barruan. Hala ere, politika hori erreferentzia gisa erabili ahal izango dute beste administrazio publiko batzuek, beren eskumen-eremuen barruan onartu beharreko ziurtagiri eta sinaduren politikak definitzeko".

Estatuko Administrazio Orokorren Sinadura Elektronikoen eta Ziurtagirien Politika aztertuta, uste da koherentea dela Berako Udalaren Administrazio Elektronikoen araudiarekin, eta guztiz onargarria dela haren alderdi teknikoari dagokionez; beraz, politika horren bidez urrats argia eman nahi da administrazio publikoen arteko elkarreragingarritasuna errazteko, eta horrek berehalako ekarriko du herritarrentzako izapideak sinplifikatzea.

Azaldutako guztiagatik, **aho batez ERABAKI DA:**

LEHENENGOA.- Berako Udalaren Informazioaren Segurtasun-Politika onartzea.

BIGARRENA.- Onartzea Estatuko Administrazio Orokorren (EAO) 2012ko azaroaren 29ko Sinadura Elektronikoen eta Ziurtagirien Politikari atxikitzea (2012ko abenduaren 13ko BOEn argitaratu zen), edo une bakoitzean indarrean dagoen politikari atxikitzea. Hori da Berako Udalarentzat ezarritako Sinadura Elektronikoen eta Ziurtagirien Politika.



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURU EGANA
2024/04/24

BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAKT KDA2 KKCJ C23Q

AKTA 2024-04-23 EU (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 58184

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

9tik 7 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria
BERA
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24

HIRUGARRENA.- Berako Udaleko alkatea izendatzea informazioaren, zerbitzuen eta sistemen arduradun, eta Berako Udaleko idazkaria, berriz, haren ordezkari.

LAUGARRENA.- Erabaki honen bidez onartzen den dokumentuan jasotako irizpideak eta jarraibideak lotesleak dira Berako Udaleko antolaketa-unitate guztientzat.

BOSGARRENA.- Informazioaren Segurtasun Politika eraginkorra da akordio hau onartzen den egunetik, eta indarrean egongo da akordio berri batek ordeztu duen arte. Informazioaren Segurtasunari buruzko Politika hau indarrean jartzeak berekin dakar udal-arlo, -unitate eta -zerbitzuetan egon daitekeen beste edozein politika indargabetzea.

SEIGARRENA.- Udalaren webgunean mantentzea Informazioaren Segurtasun-Politikaren eta Estatuko Administrazio Orokorraren Sinadura Elektronikoaren eta Ziurtagirien Politikaren bertsio eguneratua.

8. BERAKO UDALA OINHERRI ELKARTEAN BAZKIDETZEA.

OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAK idatzia aurkeztu zuen Berako Udala bazkideetako gonbidatuz.

OINHERRI ELKARTEA 2017an sorturiko irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatua da eta Beran bezala beste hainbat herritan aisia-eredu berritzailea gauzatzeko ekimenak burutzen ditu. Toki Administrazioarekiko harremanetarako eta administrazio erregistroetako zuzendariaren 2017ko martxoaren 8ko Ebazpenak Elkartearen Erregistroan inskribatzea erabaki zuen eta irabazi-asmorik gabeko erakundea da (AS/G/20808/2017).

Elkartearen Estatutuen 2. artikuluan helburuak xedatzen dira eta modu honetan laburbildu daitezke: jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitze ahalmena ematea; eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea.

Idazkariak egindako legezko txostena eta kontuhartzailearen oniritzia ikusirik, **aho batez** (legez eskatzen den gehiengo osoko quoruma) ERABAKI DA:

1. OINHERRI HERRI HEZITZAILEAK SUSTATZEKO ELKARTEAK egindako eskaera onartu eta bazkide laguntzaile gisa elkartearekin bat egitea.
2. Udalak urtero bazkide laguntzaileari dagokion ekarpena ordainduko du (1.500,00 euro), dagokion partidaren kargura.
3. Erabaki hau jakinaraztea OINHERRI ELKARTEARI.

9. BANDOAK ETA ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauen jakinaren gainean geratu dira:

- Bandoak: B12/2024 zenbakidunetik B15/2024 zenbakidunera.
- Ebazpenak: 49/2024 zenbakiko ebazpenetik (2024-03-15) 82/2024 zenbakiko ebazpenera



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELENBURU FEGANA
2024/04/24



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAKT KDA2 KKCJ C23Q

AKTA 2024-04-23 EU (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 58184

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiaztasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

9tik 8 orrialdea



SINATZAILEA

Berako idazkaria
MIGUEL JOSÉ BELARRA TELLECHEA
2024/04/24



herriko etxeko plaza, 1 tel. 948 630 005
31780 BERA
NAFARROA

IFK: P 31 25000D

www.bera.eus
bera@bera.eus

arte (2024-04-18).

10. ESKAERAK ETA GALDERAK. GAINERAKO UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

Ez dira izan.

Beste aztergairik izan gabe, 20:20ak direnean, alkateak bilera bukatutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.

Sinadura digitalak. Idazkaria eta alkatea.



SINATZAILEA

Berako Udaleko jarduneko alkatea.
AITOR ELEXPURUJ EGAÑA
2024/04/24



BERA

Egiaztapen-aseguru kodea: 3AAA AAKT KDA2 KKCJ C23Q

AKTA 2024-04-23 EU (OSOKO BILKURA) - SEFYCU 58184

Dokumentu honen eta beste informazio baten egiazkotasunaren egiaztapena eskuragarri dago helbide honetan <https://sedeelectronica.bera.eus/>

9tik 9 orrialdea